


**UMEEKIN EGITEKO  
IBILBIDEAK  
ARABA**

## Ibilbideak

- 1 Giputzuriko ermita
- 2 Arreoko aintzira
- 3 Goros haitzuloak
- 4 Landa
- 5 Zadorrako urtegiak
- 6 Atxabal (888 m)
- 7 Bastidako uharka
- 8 La Hechicera trikuharria
- 9 Igoingo sakana
- 10 Aguakeko ur-jauzia
- 11 Okinako haitzartea
- 12 Ganalto
- 13 La Muela
- 14A Txintxularrako tontorra
- 14B Altube eta Burbonako basoak
- 15 Tobería erreka ur-jauziak eta Andoingo portua
- 16 Sandratiko tunelera
- 17 Nerbioiko ur-jauzia
- 18 Marutegiko gaztelua eta Zirauntzako iturburua
- 19 Lanos eta Portillako gazteluen artean
- 20 Purón ibaiko haitzartea
- 21 Kapitategi, Sombretete, Txandi eta Santa Teodosia ermita
- 22 San Kristobal mendia
- 23 San Justi
- 24 Albiturri-Elgeamendi
- 25 Mirutegi eta Baio
- 26 Vallegrul
- 27 Menerdigako larrea
- 28 Zaldiaran, Bustuko gaina eta San Migel
- 29 Oriol
- 30 Pagogan
- 31A Lezeko leihoa
- 31B Aitzandia-Olano
- 32 Lo dagoen lehoiaren haitza
- 33 Eskamelo
- 34 Peña del Castillo
- 35 Gorbeia



# GIPUTZURIKO ERMITA

## Jauregitik

1

*Ibilbide laburra Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdean, Jauregi eta Giputzuriko ermita artean. Baseliza oihanaren bihotzean dago gorderik, Iturrietako mendietako ipar isurialdean. Atsedean eta jolaserako eremu egokia da, baita hamaiketako edo askari polit bat egiteko ere, naturaren erdian, basoaren babesean. Besterik ez. Zerbait gehiago nahi badugu, tontor bila joan gaitezke mendira igotzen diren bidezidorretatik gora, Indiaganara (1.001 m), adibidez. Gaztetxoek gustukoa izan daiteke.*

**LUZERA:** 3 km — **DESNIBELA:** 50 m — **DENBORA:** 1 h 10 min

**NOLA HELDU:** VA 3110 errepidetik, Agurain eta Dulantzi artean, Gereñu parean Uribarri-Jauregirantz hartuko dugu. Uribarri zeharkatuta, Jauregiko etxe dotoreen aurrean igaro eta Vasco-Navarro trenbidearen Errotaldeko azpiestazio elektriko zaharrera helduko gara. — **KARTOGRAFIA:** Izki - Entzia. Eskala 1:50.000-1:25.000. Sua Edizioak. — **ZAILTASUNA:** Bat ere ez. Ume txiki-txikiekin egiteko moduko ibilbidea da, baina baita ume koskorragoekin askari handi bat egiteko ere.

Errotaldeko azpiestaziotik bide berdera aterako gara eta ezkerretik jo, metro gutxi batzuk baino ez, eskuinerantz abiatzen den bidea hartu behar dugu eta. Aldats gora leunean,

haritz eta pago artean, urtegi txiki bateko hormara helduko gara. Ezkerrean utziko dugu, langa zeharkatu eta aurrerantz jarraitzen dugun bitartean. Gure atzealdean, Aizkorri-Aratz



Errotaldeko azpiestazio zaharra.

mendilerroa ikusiko dugu, urrun, harro eta erakargarri.

Urtegi kontrako puntara iritsita, bide nagusitik aurrera oihanean sartuko gara, malda leunean gora, erreka baten albotik. Bidegurutze batera heltzean, (715 m, 20 min), ezkerreko zidorretik joko dugu, mugarri baten laguntzaz. Pago eta gorosti artean tipi-tapa, eskuinetik datorren bidearekin bat egin eta ezkerretik segituko

dugu beste bidegurutze bateraino, non ezkerretik joko dugun. Eskuineko adarra Gaunako San Bitortako ospetsura doa, Iturrietako mendietako tontor-lerroan, Azazetako harratearekin bat egin baino lehen.

Erreka ondotik jarraituko dugu, pagadi sarriaren itzalpe gozotik. Hurrengo bidegurutzean, ezkerrean eskuin, berdina da, bide biek Giputzuriko ermitaraino eramango gaituz-



te eta (750 m, 35 min). Baselizaren inguruan haritz eta pago ale ederrak, zelai txikia, erreka, iturria eta askaldegia ditugu zain. Leku zoragarria da. Ermitak estalpea dauka, tximinia eta guzti.



Gipuzuriko ermita.

## Vasco-Navarro trenbidea

1887an Anglo-Vasco-Navarro Railway Company Limited enpresak trenbidea eraikitzeari ekin zion Bergara (Gipuzkoa) eta Lizarra (Nafarroa) artean. Debagoiena, Arabako Lautada eta

Mendialdea eta Estellerr eskualdeetan barrena 143 kilometro egin behar zituen. Horretarako berrogeitik gora geltoki atondu zituzten. Trenbidea egiteko lanak, oster, asko luzatu ziren, er-

liebe gaitza zelako, haitzarte eta malakar asko tartean. Bere osoan 1927an jarri zuten lanean, Gasteiz eta Lizarra arteko zatia zabaldu zutenean, eta 1967an eten zuten bere zerbitzua.

Gaur egun, gehienbat, Vasco-Navarro trenbidea esaten diogu, baita "angloa" edo "trenico" ere. Pertsonen zein merkantzien garraioa egin zuen, batez ere azukre-erremolaxarena. Trenbideko

tarte batzuk egun bide berdeak dira, oinezko eta txirrindularien gozagarri. Han ibiltzen dira oihan sarrietan barrena, edo labore-sailez mukuru betetako ordokitan, mendi, ibai, arroila eta herri

ederren bila. Jakina, bide berde horietan ibiltzean, tarteka-marteka, trenbide zaharraren lorratzak azalduko zaizkigu, izan geltokiak, bidezubiak edo tunelak. Abentura hutsa!

# NERBIOIKO UR-JAUZIA

## Urduñako mendatetik

17

*Gorobel mendilerroko gailur-lerro ederreko zokondo honetan ibiliko gara, Arabak, Bizkaiak eta Burgosek bat egiten duten lekuan, Nerbioiko ur-jauzi ikusgarriaren bila. Izan ere, ibai horren abiapuntutzat jotzen da berrehun metrotik gorako saltoa egiten duen turrusta paregabea. Beharbada ez da urik isuriko gu hurbilduko garen egunean baina, pena izan arren, ez da funtsezkoena, labarren erlaintzetik eta pagadi ederretik ibiltzea nahikoa sari dira eta.*

**LUZERA:** 10,6 km — **DESNIBELA:** 375 m — **DENBORA:** 2 h 45 min

**NOLA HELDU:** Urduña eta Espejo artean, errepideak Urduñako mendatea igo behar du. Han goian Dehesa del Aguako aparkalekua aurkituko dugu. — **KARTOGRAFIA:** Garobel/Salvada. Eskala 1:50.000-1:25.000. Sua Edizioak. — **BESTELAKO KONTUAK:** Aldaketa klimatikoa gorabehera, Nerbioiko urak turrustan amiltzen ikusteko, neguko elurren urtze eta euri garaiak edukiko ditugu kontuan. Horiek dira unerik egokienak. Gainerakoetan, euria eginda ere, ez da seguru bertara joan eta ur-jauzirik ikusiko dugunik.

Aparkalekutik abiatuko gara, PRC BU 47 bidezidorretik Esquina de Rubeneko begiratokirantz. Horretarako errepideaz bestaldeko bide-bazterreko bide seinaleztatutik jo behar dugu. Ataka bat gainditu eta gero,

aldats gora joango gara, magaletik diagonalean. Pinu, ipuru eta gorosti sakabanatuen artean igoko gara eta gero eta ikuspegi zabalagoak irekiko zaizkigu Arrastaria eta Aiarako ibarren gainean. Urduña eta Amurrioko



herriguneak ikusiko ditugu, mendi-lerroz inguratutik.

Hesi batera helduko gara eta, ataka birakari batetik igarota, eremu ireki batean sartuko gara. Erlaitza agertuko zaigu eta, haren eskuinean, Santiago mendiaren magala, atzean, urrun, Gorbeiako silueta nahasezina

magusitzen den bitartean. Erlaitzetik urruntzen den bidexkatik jarraituko dugu, esandako magalaren bila, baina lehenago larre zabala zeharkatu beharko dugu, sasi, elorri zuri eta gorosti artean. Magaletik gora, gain batera helduko gara, non bidegurutze bat aurkituko dugun, seinaleekin

**Nerbioiko amildegia, ur barik.**





Esquina de Rubengo begiratokia.

(935 m, 20 min). Han zuzen jarraituko dugu.

Santiago mendia (944 m) zeharkatu eta ezkerrean utziko dugu, larrean aurrera egiteko, tipi-tapa, erlaitzaren bila. Beste hesi bat ataka birakaritik gainditu eta erlaitzeko bidezidorrekin bat egingo dugu, Arrastariaren gaineko ikuspegi zoragarriekin, Esquina de Rubengo begiratokian agertu aurretik ere (935 m, 35 min).

Begiratokiaren azpian borda bat ikusiko dugu, Arando mendiko erlaitzeko labarrari era bitxian atxikita.

Eskuineko bidexka harritsuaz baztertuta, zuzen jarraituko dugu. Aurrerantzean bai, ezkerreko erlaitzari atxikita joango gara. Apur bat jaitsiko gara, Tortoletako pagadira. Zuhaitzian barrena egin ahala hegoalderantz biratuko gara eta Nerbioiko urjauziko labarretara hurreratuko gara,

Delikako haitzartearen gainean. Ikuspegiak zirrargarriak dira.

Jaitsiera laburrak eginez aurrera joango gara, erlaitza ezkerrean eta pagadia eskuinean, harik eta eremuia lau batera helduko garen arte. Hoyo Nuevoko otsozuloaren alboan bidegurutzeara dago. Ezkerretara joko dugu, basotik irten eta Campillo de Santiagoko zelaitik Nerbioiko urjauziaren gaineko begiratokiraino

helduko gara (820 m, 1 h 10 min). Ura dariola zein ur barik, zirrara sentituko dugu, hain da itzela amildegia.

Hoyo Nuevoko otsozuloa itzuliko gara. PR BU 44 bidezidorrari segika pagadian sartuko gara, erlaitzeko bidea bazter utzita. Horrela, pagoen edertasunean murgilduko gara eta, oihanean barrena, soilgune batera iritsiko gara. Han bidegurutze bat dago eta guk zuzen jarraituko dugu Las Paúlesko haitzulantz. Berriz ere basoan, hurrengo bidegurutzearan eskuinaldean ikusiko dugu kobazuloa. Kanpotik ikusi eta gero, ezkerrean utzi dugun bidetik segituko dugu eta, laster batean, Langreitzko Santiago monasterioaren aurrietan agertuko gara (845 m, 1 h 40 min).

Alboko pistara batuko gara eta eskuinetik joko dugu bidegurutzearaino. Han berriro ere eskuinera egingo dugu. Aparkaleku baten aurrean jarrita, ezkerrean utziko dugu eta pisatit zuzen segituko dugu. Horrela, pagadiaren ospelera itzuliko gara. Zuhaitzia iparralderantz zeharkatuko dugu, aldats txikian gora, Esquina de Rubengo begiratokiaren parean erlaitza baino lehen dagoen larreetara irten arte. Urduñako mendateko aparkalekura itzultzea besterik ez zaigu falta, etorritako bidetik.



## Behinbaomenka

Behin ba omen zen... Horrela abiatzen diren zenbat istorio, pasadizo eta ipuin entzun dugun! Eta ze pozik! Behinbaomenka ibiltzea gauza handia da. Hona ekarri dugu naturan zehar gabiltzanean txango ahalik eta atseginena osatu behar dugulako. Batzuetan

sorpresaz sorpresa ibiliko gara, baina beste batzuetan, atentzioa zerk eman ez dagoela, asper-asper eginda joan gaitzke. Denbora gozo-gozo emateko modurik errazen eta dibertigarriena ibili ahala kontu edo ipuin bat kontatzea da. Ez du edozerk balio, are gutxiago bezperan,

lotara joan orduko, irakurri diguten kontakizuna bada. Hobe da istorio ezezagun bat ekartzea hizpidera, unean bertan asmatutakoa bada, hobeto. Eta jakina, irtenbide ona dira ahoz aho eta belanez belaun irauin duten kondaira zahar horiek, orain gabiltzan lekuan bertan gertatu direnean.

# MARUTEGIKO GAZTELUA *eta* ZIRAUNTZAKO ITURBURUA

## Araiatik

18

*Aratz mendiko (1.443 m) hego-isurialdean, zeinaren babesean zabaltzen den Araia, pare bat leku gogoangarri aurkituko ditugu, bata historikoa, naturala bestea, eta guk biak lotu behar ditugu ibilbide erraz eta atsegin honetan. Alde batetik, Marutegiko gaztelua, Nafarroako erresumaren defendatzailea, izango dugu helmuga; bestetik, Zirauntza ibaiko iturburua, pagadiaren abaroan isurtzen dena. Gainera, Bagoneten Aldapa esaten diotenetik igoko gara. Bagoneta haiek hurbileko harrobitik erauzitako harriaren garraiorako erabiltzen zituzten.*

**LUZERA: 5,4 km** — **DESNIBELA: 250 m** — **DENBORA: 1 h 45 min**

**NOLA HELDU:** A 1 autobidetik, Agurain eta Altsasu bitartean, Araiarako bidea aurkituko dugu. — **KARTOGRAFIA:** Aizkorri-Aratz. Eskala 1:25.000. Sua Edizioak. — **ZAILTASUNA:** Ezer ere ez. Bidearen zati bat erripa da, malda edo patar pikoa alegia. — **BESTELAKO KONTUAK:** Zirauntza ibairako bidean, pare bat bider ubidearen albotik joan beharko dugu. Beraz, adi hezetasuna bada eta tentuz ibili.

Araiako herrigunea errepidetik zeharkatu ostean, parketxea eskuin aldean utzi eta Salsamendi kaltetik mendialdera aterako gara. Azken